

ZM

ZORROTZ MORROTZ • Zorrotzako herrialdizkaria • 84. ailea. 2023ko azaroa

SORKUNDE GARCÍA

Udaltegiako zuzendari erretiratu

Imajinatzen
duzu Zorrotza
merkataritzarik
gabe?

Baduzu eskaintzarik
onena Zorrotzatik
irten barik

ZAINDU TOKIKO MERKATARITZA

EROSI AUZOAN!



www.comerciantes-zorrotza.com

bertso afaria²⁰₂₃

ABENDUAK 1, OSTIRALA

Arrigorri jatetxea. 21:30ean

**Aitor
Etxebarri-
azarraga**



Gai jartzailea:
Arkaitz Estiballes



**Eneko
Abasolo
"Abarkas"**



MENUA

(Partekatzeko)

Iberikoak
Mendrezka entsalada
Kroketak
Olagarroa txingarretan

Plater nagusia (izena ematean aukeratzeko):

Ukondo errea saltsan
Entrekota piperrekin
Legatza koxkera eran
Izokina plantxan
Postrea, ogia, etxeko ardoa,
gaseosa, ura eta kafea

18€ PLAZA
MUGATUAK

Izena emateko: aek euskaltegia

(Azken eguna: **azaroak 27**)

Telefonoz: **944 414 920 / 663 080 976**

* Izena ematean ordaindu beharko da eskuan edo transferentzia bidez
eta menuko plater nagusia aukeratu behar da

Antolatzailea:



Laguntzaileak:



Babeslea:



Punta Zorrotzarako proiektu irabazlearen balorazioa

sarrera

ZM

ZORROTZ MORROTZ
Zorrotzako herri aldizkaria

84. alea. 2023ko azaroa

f @ZorrotzMorrotz
t @zorrotzmorrotz
e zmorrotz@gmail.com

Argitaratzen du:
Zorrotzako Euskal Txokoa

Erredakzioa:

Ibai Barrios
Ainara García
Igor Gutiérrez
Aitor Marín
Naroa Peña
Iratze Pérez

Laguntzaileak:

Manu Cobo
Asier Urkiza

Koordinazioa:

Naroa Peña

Diseinua eta maketazioa:

Aitor Marín. (amc diseinua)

Zuzenketak:

Iñigo Ramirez de la Piscina

B Zorrotz Morrotz aldizkariak Bilboko udalaren diru-laguntza jasotzen ditu.
Bilbao Euduiaren erantzule bakarrak ZM bera eta kasuan kasu, testuaren sinatzaileak dira.

Duela gutxi jakin dugu Idom enpresak irabazi duela Bilboko Udalak Punta Zorrotzako hirigintza-antolamendurako deitutako lehiaketa. Zenbait gai konpontzeke daudela uste dugu, eta oso garrantzitsua izango da herritarron artean ireki behar den prozesu partehartzailea.

Proiektuak ondare historiko-industrialia errespetatzen du, eskatzen genuen bezala, baina azpimarratu nahi dugu Molinos Vascos eraikinak gure ingururako traktore ekonomiko eta sozial gisa balioko lukeen ekipamendu-gunea izan beharko lukeela. Era berean, egokia iruditzen zaigu erabili gabeko espazioak berrerabilteza; zehazki, portuko hiru pabiloi berrerabilteza jarduera ekonomikoak sortzeko.

Sarbideak eta komunikazioak, oro har, egokiak dira. Bestalde, planteatutako Osasun Zentroak egungo biztanle-gunetik gertuago egon beharko luke. Leku aldaketa horrekin askatutako eremuan, Molinos Vascos inguruan aisialdirako gune bat sortu beharko litzateke. Txinbo Parkea halaber, proiektuan bere horretan integratzea nahi dugu.

Renferen trenbideak lurperatzea ere oso garrantzitsua da, kohesio urbanistikoa lortzeko. Etxebizitzen kopurua onargarria iruditzen zaigu, baina xehetasun gehiago ezagutu beharko dira.

Oso gertutik jarraituko ditugu proiektuaren urrats guztiak eta informatzen jarraituko dugu.



zorrotz
osua ekaroten



IZAN ZAITEZ HARPIDEDUN!

ZM zure e-postan jasotzeko, bidali mail bat zmorrotz@gmail.com helbide elektronikora, gaiaren laukian **"harpidetza"** jarriz

cafe txinbo

Espezialitateak:

Tapak eta errazidok

Kanapeak



Abaro estrata, 10
Tel. 94 608 85 74



FARMAKOTEGIA

SUSANA

URRITIKOETXEA

Astillero 1. 48013. Zorrotza

Tlfno. 94 441 61 46



Lápices

LIBURVENDA



Untziola kalea, 8
ZORROTZA

IDOMen LotURA, Zorrotzako Puntako Plan Berezia idazteko proposamen irabazlea



Planak bi mila etxebizitza, “ikus-entzunezko hub” bat, trenbideak eta Renferen geltokia lurperatzea eta hainbat ekipamendu publiko eraikitzea aurreikusten du, industria-ondarea berreskuratzeaz gain.

AITOR MARIN

Bilboko IDOM ingeniaritzaren ‘LotURA’ izeneko proposamenak irabazi du Bilboko Udalak Zorrotzako Puntako etorkizun urbanistikoa antolatzeko deitutako lehiaketa. Epaimahaiak proposamen honen egokitasuna, hirigintza-kalitatea eta espazio libreak, bai eta bideragarritasun tekniko eta ekonomikoa nabarmendu ditu. Talde irabazleak 5.000 euro jasoko ditu eta Udalak Plan Orokorren Aldaketaren garapena esleitu dio, antolamendu xehatuarekin 2024an garatzeko. Horren ondoren, partaidetza-prozesu baten bidez, Zorrotzako herri-mugimenduak eta beste eragile batzuek beren ekarpenak egiteko aukera izango dute eremuaren diseinuan.

Asier Abaunza Hiri Plangintzaren, Proiektu Estrategikoen eta Espazio Publikoaren zinegotzi delegatua ez da epeak jartzera ausartu, baina hauek luzeak izango direla ohartarazi du. Partaidetza-prozesuaz gain, hainbat administrazio sektore-txostenak egin behar dituzte, batez ere Renfeko trenbidearekin zerikusia dutenak (planak trenbideak lurperatzea eta lur azpiko geltoki berri bat eraikitzea aurreikusten du). Gainera, lurzorua deskontaminatu egin behar dira, eta, jakina, Sader Profersa, hiltegi zaharrean jarduten duten haragi-enpresen eta Barinaga kaleko bizilagunen lekualdaketa bermatu behar da.

Bi mila etxebizitza inguru

Azaleraren zatirik handiena, 200.000 metro koadro pasatxo erdiko eremuan, bizitegi-erabilerrako gordetzen da. Hala, 2.000 etxebizitza inguru eraikitzea aurreikusten da, eta horietatik % 45 gutxienez babes ofizialekoak edo tasatuak izan beharko dira.

Era berean, Udalak ikus-entzunezko jarduerak garatzeko erosi zituen hiru industria-pabiloiak birgaitzea proposatzen du Planak. Pabiloietan, adibidez, filmaketa-estudio bat, bulegoak, kamerinoak eta lotutako gaineko zerbitzuak kokatuko lirateke

Ekipamendu publikoak

Gainera, planak ekipamenduetarako 50.000 metro koadro baino gehiago proposatzen ditu. Zehazki, eskola eta haurtzaindegi bana, bai eta 7.000 metro koadro baino gehiagoko zuzkidura-bizitokia eta kirol-ekipamendua ere, eraikin-paisaia gisa sortua eta gainetik ibiltzeko moduko estalkia daukana. Horrez gain, erdiko eremuan osasun-zentroa egitea proposatzen da, 5.000 metro koadrotik gorakoa, eta ekipamendu sozio-kultural bat murturrean (16.150 metro koadro).

Oro har, oinezkoen eta bizikleten mugikortasuna lehenesten da, espaloi zabalak eta pertsona guztientzat irisgarriak diren eta garraio publikoarekin konektatuta dauden



IDOMen fotomuntaketa Talleres de Zorrozako txaleta dagoen eremurako

espazioak sortuz. Lau zubi ere planteatzen dira, hiru zirkulazio mistokoak (Elorrieta, Zorrotzaurre eta Burtzeñarekin) eta bat oinezkoentzat (Burtzeñarekin). Era berean, 58.126 metro koadro erreserbatuko dira berdeguneetarako Ibaizabal itsasadarraren eta Kadaguaren ertzeko eremu publikoa aprobetxatuz.

Ondarea

Molinos Vascos eraikin historikoa, proposamen irabazlearen arabera, merkataritzarako eta hoteletarako gunera batera bideratuko da, baina Abaunza zinegotziak zehaztu du hipotesi bat baino ez dela, eta “zehazten joan beharko dela”. Talleres de Zorroza, ildo horretan, Puntarako proposatutako kultura-ekipamenduaren parte izango da, eta lantegi historikoko “Txaleta”, ikus-entzunezkoen prestakuntza-zentroa izango da. Altxola zubia birgaitu egingo dela ere ziurtatzen du proiektuak, “Burtzeñarekin lotzeko oinezkoentzako ibilbide posible batekin”.

Molinos Vascos hotel bihurtzearen aurka

Auzo Elkarteak auzo-mugimenduarekin harremanetan hasiko da proiektua sakon baloratzeko, baina apunte batzuk aurreratu ditu, adibidez: ondare historiko industrialaren errespetatzea positibotzat jotzen badu ere, uste du Molinos Vascos eraikinak auzorako eta inguruetarako traktore ekonomikoa eta sozial gisa balioko lukeen ekipamendu-gunea izan beharko lukeela. Gainera, osasun-zentroa egungo erdialdetik hurbilago egon beharko litzatekeela uste du.

EH Bildu ere Molinos Vascos hotel bihurtzearen aurka agertu da, eta plana hamar urteko atzerapenarekin datorrela deitoratu du, “ingurua biziberritzeko prozesua 2012an hasi baitzen”. Alderdiaren ustez, bizilagunen kalterako izan da atzerapena “Saderren kutsadura jasan behar izan dutelako”, eta baita industria-ondarearen kalterako ere: “beharrezkoa den berreskurapena eta balioa ematea arriskuan jartzeraino degradatu da eta”.

Zorrotzako kaian itsasadarrerako balizko isuri kutsakorra salatu du San Inazioko Auzo Elkarteak Fiskaltzaren aurrean

ZORROTZ MORROTZ

San Inazioko Auzo Elkarteak Zorrotzako kaian itsasadarrerako balizko isuri kutsakorra salatu zuen joan den irailean. Salaketarekin batera, hainbat argazki aurkeztu zituen elkarteak, non Sader-Profersa enpresaren aurrean langile batzuk agertzen diren presiozko mahukak erabiltzen kaiko zorua garbitzeko. Horrek utzitako erreka, itsasadarrean amaitu zuen.

Isuri toxikoak ukatzen dituzte

Udaleko bozeramaileek azaldu zuten, Udalak Saderren filial bati enkargatu zizkion “garbiketa-lan” horiek, eta itsasadarrari ez zitzaion “inolako kalterik” egin, ezta “isuri toxikorik” ere. Kaiko eremu hori jabetza publikokoa da aspalditik, baina bizilagunentzat itxita jarraitzen du, eta kamioiak Sader Profersa enpresara sartzeko baino ez da erabiltzen.

Udalak bidegorria konpontzeko lizitazioa egingo du luizia gertatu eta bi urtera

ZORROTZ MORROTZ

Udal gobernua EH Bildurekin adostu zuen, urriko osoko bilkuran, Zorrotza eta Olabeaga arteko bidegorria konpontzeko obra aurreratzea eta “urtea amaitu baino lehen” lizitatzeari. 2021eko abenduan, euriteek lur-jausia eragin zuten, eta horrek bidegorriaren zati baten mozketa ekarri zuen. Udalak, luizi gehiago ekiditeko, hormigoizko hesi bat jarri zuen txirrindulariei bidea moztuz, eta oinezkoekin partekatutako pasabide bat ahalbidetu zuen. “Behin-behineko irtenbide” horrek bi urte inguru iraun du. Bitartean, seinale pare bat baino ez da jarri, moztutako tartean txirrindulariak bizikletatik jaitz daitezzen.

Lurren jabetzarekin bueltaka

Hasiera batean zaila ez zirudien konponketaren arazoa lurren titulartasunarekin iritsi zen, eta, beraz, lanak gauzatzeko erantzukizunarekin. Renfe Aldiriko trenbideak kudeatzen dituen Adif enpresa publikoa da

erori zen hormaren jabea, eta hasiera batean Udalak ziurtatu zuen obra Adifen eskumena zela. Ondoren, proiektuak Adifen onespenera behar zuten, trenbideak trenen trafikoari eragin diezaiokeelako; eta hori gutxi balitz, bidegorria dagoen lursaila Portuaren jabetzakoa zela ondorioztatu zen.

2022ko azaroko osoko bilkuran Olabeaga eta Zorrotza arteko bidegorria konpontzea onartu zen, Bilboko Udalak Zirgariaren titulartasuna eskuratu ondoren. Udalak 2023ko otsailean jaso zuen lur horien jabetza, baina gaur egun oraindik bidegorri hori konpondu gabe dago. Urriaren EH Bilduk EAJ eta PSEren gobernuarekin egindako akordioari esker, Udalak konpromisoa hartu du Olabeaga eta Zorrotza arteko bidegorriaren eta Zirgariaren kaian dagoen pasealekuaren obrak 2023a amaitu baino lehen lizitatu beharko den kontratua esleitu bezain laster hasteko.

BizkaiBizi zerbitzua martxan

ZORROTZ MORROTZ

BizkaiBizi bizikleta publikoaren mailegu-zerbitzu berria martxan da urriaren 16tik. Aldundiak eta Barakaldo, Berango, Bilbo, Erandio, Getxo, Leioa, Portugalete, Santurtzi eta Sestaoko udalerriek bultzatutako zerbitzu honi esker, 16 urtetik gorako edozein pertsonak bizikleta elektriko bat alokatu ahal izango du udalerrira haueetatik ibili ahal izateko. Nahikoa da www.bizkaibizi.eus webgunean izena ematea. Bertan zerbitzuaren informazio guztia eskura dago: udalerrira partaideak, apartatu eta kargatzeko guneen mapa, berriak, ohiko galderak, gorabeherak, etab. APPa ere webgune horretatik deskargatu daiteke.

Urteko abonauak 25 euroko kostua du, baina abenduaren 31ra arte, urteko txartelak erdia balioko du, eta lehenengo 30 minutuak doakoak izango dira eskaintza berezi gisa.





Clara Campoamorri eskaintako mural bat egin dute bere izena duen kalean

ZORROTZ MORROTZ


Eva Mena muralgileak margotu duen artelana, Parte-hartze Bidezko Aurrekontuen prozesuan hautatutako ekimena izan da. Carlos Rodríguez gure laguntzaileak proposatu zuen omenaldia emakumeen eskubideen defendatzaile horren izena duen kalean bertan egitea, eta berak aukeratu zuen horma-irudia non jarri. Muralaren ondoan, QR kodeak jarri dira, eta haien bidez Clara Campoamorren bizitza kontatzen da eta haren lanari buruzko azalpenak ematen dira. Campoamor espainiar politikaria eta militantzia feministan aitzindaria izan zen. Estatuko feminismoaren “ametak” bat eta emakumeen boto-eskubidearen defendatzaile sutsua izan zen.

Moisés Arcek bere ibilbide altruista saritzen duen “Bilbo, Adinekoen Lagun” saria jaso du

ZORROTZ MORROTZ

Moisés Arce Espiña Zorrotzako Auzo Elkarte-ko kidearen ibilbide altruistak ongi merezitako ohorezko aitortza jaso zuen Udalaren “Bilbo Adinekoen Lagun” sariaren bidez. Urriaren 1ean ospatzen den Adinekoen Nazioarteko Egunaren testuinguruan, Udalak Campos Antzokian antolatutako “Bilbo, Adinekoen Lagun” galan, Moisések bizitza osoan zehar izan duen Zorrotzako bizilagunen bizi-kalitatearen ho-

bekuntzarekiko konpromisoa saritua izan zen. Moisésekin batera, beste hiru pertsonak jaso dute aurten “hiria eta auzoak bizitzeko toki atsegina-goak bihurtzeko izandako dedikazioa” aitortzeko helburua duen sari hau.



Taramona

ERAKUSTOKIA ETA SALMENTAK
Zorrotza-Kastrexana errep. 45-57-75
Telefonia: 94 442 44 68

TAILERRAK ETA ZERBITZUAK
Zorrotza-Kastrexana errep. 75
Telefonia: 94 442 17 12



**ESKAINITZA
PROGRESIBOETAN**

**ARMAZOIA +
KRISTALAK** GOI-
GAMAKOAK

265€

Sustapena indarrean ++ 4,00 eserako eta
-2,00 zilindroko arteko graduzioetarako
RPS: 213/18

ibarretaluxury
OPTICA

// Identitate oso berezia eta markatua baduzue euskaldunek //

SILVIA BERINI

Jaiotokia: Milan. (Italia)

Noiztik: 2010etik Bilbon.

Zorrotzan, 2013tik.

Adina: 43 urte.

Lanbidea: Soziologoa.

Immigrazio proiektu kulturalen koordinadorea.



Hiri handietara ohituta, Bilbo eta Zorrotza hasiera batean txiki egiten zitzaizkion 2013an gurera heldu zen italiar emakume honi. Gaur egun, auzo txiki batek hazkunderako adibidez eskaintzen dituen abantaila ugari konkistatu egin dutela dio. Oso giro ona eta bizilagunen parte hartze oso handia duen oso auzo aktibo batean bizitzea gustuko duela dio halaber. Eta haurrentzako ditugun jolastoki ugari esker, bere semeek ez lukete Zorrotza "munduko beste ezerengatik aldatuko"

TESTUA: AINARA GARCÍA | **ARGAZKIAK:** AITOR MARÍN

Nolatan heldu zinen Zorrotzara?

Hona etorri baino lehen hiru urtez eman nituen nire bikotekidearekin San Frantziskon. Zorrotzara umeekin etorri ginen. Hasieran, hiri handietara ohituta, Bilbo txiki geratzen zitzaidan, baina auzo txikietan ekintza ugari ere egiten zirela konturatzean eta eremu txikietan bizitzeak umeekin mugitzeko dakarren erraztasunak konkistatu naute.

Zer da zure herritik gehien duzuna faltan?

Familia eta lagunak baino ez. Janaria eta harremanak izateko moduak oso antzekoak dira han eta hemen.

Ezberdinak dira Milan eta Bilbo? Zer da hemen gehien harritu zintuena?

Leku guztietan dauden tabernak eta bertako giroa. Oso bitxia eta polita ere iruditu zitzaidan adin guztietako pertsonak gune bera partekatzea. Berdin da umea, gaztea edo nagusia izatea. Belaunaldien arteko integrazio hori izugarri interesgarria da. Eta jaiak! Denetarik ospatzen da eta leku guztietan. Berdin da hiri nagusia, herria edo auzo txikia izatea... Oro har, hemengo jendea oso parte-hartzailea dela nabarmenduko nuke.

ZORROTZA
1987-2017

“**Hemen edonon daude tabernak, eta oso bitxia eta polita iruditzen zait bertan den belaunaldien arteko integrazioa**”



Eta zuk parte hartzen duzu auzoan antolatzen diren ekintzetan?

Normalean ikusle moduan egoten naiz. Orain dela gutxi eskolako Guraso Elkartearen parte hartzen hasi naiz.

Zer da Zorrotzan gehien gustatzen zaizuna?

Kokapena, menditik eta aldi berean hondartzatik gertu. Ia-ia denok elkar ezagutzea ere asko gustatzen zait. Auzoak duen kulturartekotasuna ere gustukoa dut, nahiz eta gure arteko desberdintasunak partekatu eta gehiago aprobetxatu ahal izateko beste herrialde batzuetako denda eta lokal gehiago ireki beharko lirakeela uste dut. Auzo oso aktiboa izatea ere maite dut: jaiak, era askotako ekintzak, taberna eta denda ugari... Eta umeentzako jolastoki eta gune ugari daude.

Alde txarrak ere izango dira...

Lana topatzeko zailtasuna. Lan-aukera apurrrak izan ditut, eta horregatik, Italiako enpresa baterako telelana bitartez egiten dut lan.

Lagunak egitea kostatu zitzaizun?

Auzoan integratzea apur bat zaila izan da nire kasuan. Telelana eginez ez dut adibidez lan-kideen artean lagunak topatzeko aukerarik izan. Ezagun gehienak umeen bitartez egin ditut. Ez dut kexarik haietaz, baina gehienetan ez dira kidetasunez sortutako edo nahierara aukeratutako lagunak.

Zein da zuretzat hemengo jendearen ezaugarririk aipagarriena?

Pixka bat zaila da hasieran giroan sartzea. Italian dugun topiko espainiarraren ideiarekin iritsi nintzen Euskal Herrira, baina hemengo errealitatea guztiz ezberdina dela konturatu nintzen berehala. Oso identitate berezia eta markatua daukazue. Europako iparraldearekin antza handiagoa dago. Espero nuen baino seriotasun eta orden gehiago aurkitu nuen.

Euskara ezagutzen zenuen? Ikastea gustatuko litzaizuke?

Hona heldu baino lehen ez nekien existitzen zela ere! Oso polita izango litzateke euskara ikastea, jakina. Batez ere, umeengatik. Baina oso zaila da, eta gaztelera jakinda egunerokotasunean ez dut arazorik izan, eta beraz, ez dut euskara ikasteko premiarik izan.

Zure herrira sarritan bueltatzen zara?

Ama ikustera eta bera umeekin egon dadin, bizpahiru hilean behin gutxienez, eta urtero oporretan ere joaten gara.

Jaioterrira inoiz itzultzeko asmoa duzu?

Oraingoz ez dugu horrelakorik planteatu, nahiz eta aurreko bizitzarekiko eta agian orain existitzen ez den aurreko bizimoduarekiko nostalgia sentitu. Baina gaur egun, hiri handiek eta bizimodu berria hasteko aukerak ez naute batere erakartzen.


1974an polizia frankistak hildako Jon Urzelairen omenezko monolitoa kendu du Udalak

1a 20 urte Untziola kaleko parkeko lorategi batean jarrita eman ondoren, Udalak Jon Urzelairen omenezko monolitoa kendu du, COVITEren salaketa baten ondoren. Datorren urtean 50 urte beteko dira Guardia Zibilak militante antifrankista hil zuenetik



TESTUA: AITOR MARÍN

Bilboko Udalak Untziola kaleko parkeko lorategian zegoen Jon Urzelairen omenezko monolitoa kendu du. Horrela jakinarazi zuen Terrorismoaren Biktimen Kolektiboak (COVITE), sare sozialetan Juan Mari Aburto alkateak bidalitako gutun bat eskegiz. Bertan, COVITEren arabera “Terrorismoaren Biktimen Aitorpena eta Erreparazioa egiteko Legea urratzen zuen” monolitoa kentzeko eskaerari erantzun zion alkateak. Gutun horretan, Aburto alkateak COVITEko lehendakari Consuelo Ordoñezi jakinarazten zion Udalak monolito hori kendua zuela “biktimen duintasuna eta errekonozimendua babesteko”.



Jon Urzelai Imaz

Jon Urzelai Imaz 1974ko irailaren 11n polizia frankistak Untziola kalean eraildako ETAKidea izan zen. 1948an Donostian jaioa, Aranon eta Ataunen eman zuen haurtzaroa Urzelaiak. 1973an atxilotu zuten lehen aldiz, eta 1974an ihes egin zuen espetxetik eta ETAKo legez kanpoko liberatu bihurtu zen Bizkaian. Diktadura frankistaren azken urteak ziren, eta gero eta aurkakoagoa zen giro hartan. 1974ko irailaren 2an, Urzelaiak Laudioko Tubacex enpresari egindako lapurreta batean parte hartu zuen.

Hilabete bereko 11n, erregistro eta kontrol ugari izan ziren Bilboko sarrera-irteeretan. Horietako batean, Martín Durán Grande agentea zauritu zen, lau egun geroago hil zelarik. Urzelairi berari egotzen diote hilketa hau. Ordu batzuk geroago, guardia zibilak Urzelai hil zuen. Andoni Campillo kidearekin batera, Untziola kaleko pisu franko batean babesten saiatu ziren, egungo 6. zenbakiaren parean. Iritsi zirenean, polizia zain zuten segada batean. Campillok ihes egitea lortu zuen, baina polizia frankistaren tiroek Urzelai hil zuten. 26 urte besterik ez zituen.

Handik urte gutxira, eta Urzelai hil zuten segada gertatu zen lekutik metro gutxira, hondakinak, arratoiak eta zinkinkeria pilatzen ziren leku batean, auzoko bizilagunek parke bat eraiki zuten, modu herrikoian eta auzolanean. Parke honek betidanik izan du *Jon Urzelai* izena auzokideontzat. “Gauza herrikoia izan zen. Inori ez zitzaion gaizki iruditu, frankismo batean hil baitzuten, ezer esan ezin zenean”. Auzo Elkarteak militante veterano baten hitzak dira. Udalaren zenbait argitalpen ofizialetan ere “Jon Urzelai parkea” izena

**Urzelai, 1974an
erahila, amnastiatuta
egongo zen
Franco hil ondoren.
Orduan gertatutako
guztia, gainera,
zigorgabetasun
judizial frankistak
estali zuen**



JON URZELAI IMAZ

★
Zorrotzan, 1974ko irailaren 11n
Guardia Zibilalak tiroz eraila
Zu sortu zinen enbor beretik,
sortuko dira besteak!

Lehenengo monolitoa zegoen leku
berean oroigarri berri bat agertu zen
hurrengo egunean. Azken hau ere
berehala kendu zuten udal langileek.

agertu da behin baino gehiagotan, eta parkeak izen hori zuen plaka bat ere izan zuen, nahiz eta ofizialki inoiz ez den horrela agertu.

Errekonozimendu horrez gain, duela hamazortzi urtetik hona, monolito bat jarri zen parkeko lorategietako batean, gazte antifrankistaren oroimena gogorarazten zuen plaka batekin. Plaka behin baino gehiagotan desagertu bada ere (desagertze horietako bat COVITEK berak aldarrikatu zuen), auzotarrak beti arduratu dira plaka berriro jartzeaz. Loreak ere ez dira falta izan irailaren 11 guztietan, Urzelairen heriotzaren urteurrenean. Eta halaxe gertatu zen aurten ere.

“Omenaldia egin zioten atzo Bilboko Zorrotza auzoan Martin Duran Granderen hiltzaileari, Jon Urzelai Imaz ETAKideari. Aski da: ez legitimatu hiltzaileak eta ez ahaztu biktimak”. Irailaren 12an COVITEk lehen Twitter zen X sare sozialean botatuko txio baten parte da hau. Argitalpena krespoi beltz bat eta loreak zituen ikurrin batekin apainduta zegoen monolitoaren argazki batekin batera zihoan. Elkarteak Udalaren aurrean salatu eta monolitoa kentzeko eskatu zuen, azkenean urriaren hasieran gertatu zen bezala.

Denbora honetan guztian, Udalak ez zion inolako eragozpenik ipini monolitoari. 2021ean COVITEk antzeko salaketa egin zuen. Orduan ez zuen Bilboko Udalaren erantzunik jaso.

Orain, ordea, Aburtok men egin dio COVITEn eskakizunari, eta Polizia frankistaren biktima orotarazten zuen monolitoa kendu du, bere hilketaren 50. urteurrena betetzeko urtebete falta denean. Era berean, alkateak Jon Urzelai “Martin Duran Granderen hiltzailetzat” jo du COVITEn igorritako gutunean, baina alboratzen du une horretan gertatutako guztia, diktaduraren zigorgabetasun judizialak estalita geratu izanaz gain, amnastiatua izan zela Franco diktadorea hil ondoren.

Egun batzuk geroago, Urzelairen oroimenaren oroigarri berri bat agertu zen lehen monolitoa zegoen leku berean, plakaren irudia lau makiletara lotuta. Egitura berri hau ere, argazkian agertzen dena, berehala kendu zuten udal langileek.

LASTER ⚡

Elektrizitatea
elektronika

- INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
- ATEZAIN AUTOMATIKOAK
- ARGIZTAPENA
- SARE INFORMATIKOAK

TFNO./FAX: 94 442 46 35
LARRIALDIAK: 657 79 57 04
www.electricidadlaster.net

MENDIGAIN ETXALDEA
ZORROTZA 48013

RISKO
Burdindegia

Zorrotza Kastrexana, 7
Telefonoa: 94 441 64 86

SORKUNDE GARCÍA:
Udaltegiako zuzendari erretiratua

**/// Elkarte
askoren
sorrera bizi
izan dut,
baita
Zorrotz
Morrotzen
sorrera
ere //**

Hogeita hamabi urte jarraian eman ditu Zorrotzako udaltegian, zuzendari. Bere azken lan egunean hitzordu bat izan dugu hitz egiteko. Bere kokapen pribilegiatutik gure auzoaren eraldaketaren lekuko izan da. Jubilatzeako ordu gutxi falta zaizkionean, oroitzapen asko kontatu dizkigu emakume santurtziar honek.

TESTUA: IGOR GUTIÉRREZ. ARGAZKIAK: AITOR MARIN





“Hasieran Don Claudio jatetxe-ohiaren etxean geunden, oso leku txiki batean.

Noiz eta nola sortu zitzaizun marrazketa eta komikiarekiko interesa?

Oso txikitatik izan dut marraztea gustuko. Gogoan dut Lehen Hezkuntzako bosgarren kurtsoan gutxi gora behera, komiki bat egitea eskatu zigutela, orrialde batekoa. Ni irakasleak eskatutakoa egiten saiatu nintzen, baina askoz orrialde gehiago behar nituen buruan neukan ideia paperean islatzeko. Azkenean, nahiz eta ezin izan nuen garaiz bukatu, lan hura benetan gustatu zitzaidalda konturatu nintzen. Ez dakit nola azaldu, baina nire burutik pentsamendu eta ideia asko pasatzen dira oso azkar, eta komikia edo marrazketa ideia horiei bide emateko tresna da.

Zorrotzan oso ezaguna zaitugu, baina noiz hasi zinen gure auzoan lanean?

1991n iritsi nintzen Zorrotzara, Bilboko administrazio oposaketak gainditu eta gero. Hasiera batean, Santutxun hasi nintzen praktiketan baina laster kontratupeko lanpostua atera zen Zorrotzan eta hura aukeratu nuen. Garai horretan Bilbon barrutietako udaltegiak zabaldu zituzten, baina gehienetan aldi baterako lanpostuak eskaintzen ziren. Zorrotzakoa lanpostu finkoa izanik eta ni Santurzinzin bizi izanda, aukera ona iruditu zitzaidan.

Non zegoen kokatuta Auzo Etxea?

Don Claudio jatetxe-ohia zegoen etxean, Fray Juan kalean. Heldu nintzenean jadanik Bego zegoen, egungo auzoko liburutegia. Izan ere, bertan zegoen liburutegia, atetik sartuta ezkerrean zegoen gela txiki batean. Bi mahai baino ez zituen, astoen gainean jarrita. Eskuinaldean, berriz, nire mostradore zegoen eta Ongizate Saileko bulegoa ere. Auzokideek “*el comedor bonito*” esaten zioten, Don Claudioko jangela polit bat omen zegelako aurretik. Eta ondoko gela batean, gimnasia-gela geneukan.

Zer nolako lanak egiten zenituen garai horietan?

Erroldaketa, paper erregistroak... Datuak jaso eta udaletxera eramaten genituen, bertan grabatzeko. Garai hartan, ez genuen ordenagailurik, dena eskuz egiten zen eta izara zeritzeten paper erraldoi horiek erabiltzen ziren. Bestetik, Auzo Etxean egiten ziren udal ikastaroen izen-ematea ere kudeatzen genuen eta diru hori bankura eramaten genuen guk geuk. Eta, noski, auzoko elkarteetan gela-erreserbak eta abar. Hasiera batean ez genuen atezainik, beraz, atezain lanak ere egin behar.



“Elkarteetako kideak bulegora sarri sartzen ziren telefono-deiak egitera eta beraien eguneroko kontuen lekukoa nintzen nolabait

Noiz mugitu zineten egungo kokapenera?

Don Claudioko etxea bota zutenean, barrakoi batzuetan egon ginen, kiroldegia eraiki bitartean, hemen bertan. Kiroldegia 1997an amaitu zuten, Josu Ortundo alkate zela. Zuzendariaren eta Ongizate Sailaren bulegoa beheko pisuan zeuden eta elkarteentzako bilera-gelak ondoan. Tailer gela eta audioteka ere beheko solairuan zeuden. Goian, berriz, liburutegia jarri zuten eta erakusketagela bat. Orain Ongizate Saila Untziola Kanean dute kokatuta, liburutegia Fray Juan kalean dago -bere lehengo lekuan orain hitzaldi-gela dago- eta erakusketa-gela desagertu da, orain KZgunea delarik. Gure bulegoa ere lekuz aldatu da, orain “zeruan” (goiko pisuan) gaude.

Hainbeste urtez hemen lan eginda, elkarte asko ezagutuko zenituen, ezta?

Ni heldu nintzenez Auzo Elkarteetan jadanik bertan zegoen, baina elkarte berri askoren

sorrera ikusi izan dut. Esaterako, Jubilatuen Elkartea, Mikel Deuna Abesbatza, Txinbotarrak konpartsa... Euskararen arloan, Izenbarririk Mintzataldea, Zorrotzako Euskal Txokoa eta Zorrotz Morrotz aldiakariaren hastapenak ere bizi izan ditut! Lehen, mugikorrek hedatuta ez zeuden garaian, elkarteetako kideak bulegora sarri sartzen ziren telefono-deiak egitera. Denbora asko ematen zuten hemen eta noski, nire ondoan berba egiten zuten, beraien eguneroko kontuen lekukoa nintzen nolabait.

Gure auzoaren bilakaeraren lekuko paregabea zaitugula aprobetxatuz, zer nabarmenduko zenuke Zorrotzari buruz?

Nire auzoa den Santurtziko Mamariga eta Zorrotza oso parekoak ikusten ditut, biztanleriari eta bilakaera historikoari erreparatuz. Zerbitzu eta ekipamenduei dagokienez, argi dago aurrera egin duela auzoak, beste auzo batzuen moduan, jakina. Zerbait aipatze-

// AEKren sorrera bizi izan nuen. Bertan irakaslea izan nintzen eta hori izan zen nire lehenengo lana //

Zein izan zen zure lehenengo lana?

Euskara irakaslea izan nintzen Santurtziko AEKn 13 urtez. Gau-eskoletan hasi nintzen, Bihotz Gaztea ikastolan. Geroago AEKren sorrera bizi izan nuen, baita Santurtziko udal euskaltegiarena ere.

Zein beste lekutan egin duzu lan?

Administrari lanak egin izan ditut Barakaldoko Udalerako, Gizarte Seguntzarako... Arartekoaren bulegoan ere lan egin nuen, Gasteizen, nire lehen oposizioak gainditu ondoren. Hilabete gutxira Bilboko oposizioak atera nituen eta hona etorri nintzen.

Kontaguzu zure lanaren bitxikeria bat.

Soldaduska garaian, udaltegiek egiten zituzten deialdiak, eta bertan egiten ziren sarrera tramiteak, pisatu, neurriak hartu eta guzti. Gure barrutian lan hori Basurtuko udaltegian egiten zen, beraz, alde horretatik soldaduskatik libratu nintzen, kar-kar-kar.



kotan, jatorri atzerritarra duten auzokideen kopurua asko hazi da azken urteotan, eta iji-toena, berriz, apaldu.

Zure bulegoko kortxoa munduko postalez josita zenuen, baina gaur hutsik dagoela ikusi dugu, zurekin eraman nahi izan dituzu oroigarri gisa?

Ez, Begok eskatu dizkit berarentzat, liburutegian jartzeko! Postal horien atzean istorio xeble bat dago. Kiroldegi pareko eraikineren mugitu ginenean, bulegoan ez genuen leihorik, bista altxatu eta horma zuri bat besterik ez geneukan. Orduan, lankideoi bururatu zitzaigun oporretan joaten ginen ba-

kitzean postal bat bidaltzea Auzo Etxera, horman jarri eta noizean behin paisaiaren bat ikusteko. Hainbeste urteren ondoren, kortxoa erabat beteta zegoen!

Zer sentitzen duzu jubilatzeko ordu eskas batzuk falta direnean?

Egia esan, asko kostatu zait jubilatzean nindoalako ideia egitea. Kortxoko postalak kentzerakoan jabetu naiz benetan une hori heldua zela, zer diren gauzak... Pozik nago, nola ez! Baina ezin uka aldi berean pena ematen didala lankide eta auzotarrei agur esan beharra. Hala ere, noizean behin bisitan etorriko naiz.



ZORROTZA HERRIGINTZAN



ZORROTZAKO BATZOKIA

Erreserbetarako telefonoa: 94 405 92 63
(bazkariak, afariak, urtebetetzeak, ospakizunak...)



AGENDA

Abenduak 1, ostirala

21:30 Arrigorri jabetxean.

BERTSO AFARIA:
AITOR ETXEBARRIAZARRAGA
eta ENEKO ABASOLO "ABARKAS"
bertsolariekin

Abenduak 16, larunbata

21:30 Gaztetxean.

Kontzertua: ZEA MAYS
Sarrera: 10 € aurretik / 12 € bertan



PRIMERAN

www.primeran.eus

Primeran mundura zabalik dagoen euskal leiho digital berria da. Euskal eta euskarazko edukien streaming zerbitzurik handiena. Bertan, denetarik edukiak aurki ditzakezu, besteak beste, euskal ekoizpeneko eta nazioarteko telesailak, zinea, dokumentalak eta haurrentzako edukiak. Baita, eduki eksklusiboak ere. Nonahi, noiznahi euskarazko edukiez gozatzeko plataforma.

Primeran guztiz doakoa da erregistratutako erabiltzaileentzat. Izena eman baino ez duzu egin behar. Posta elektronikoko bat jasoko duzu zure kontua aktibatzeko esteka batekin. Behin "Saioa" hasita, Primeranen eduki guztiak ikusgai izango dituzu.

Zure elkarrearen ekitaldiak ZMeko hurrengo agendan (urtarrila eta otsaila) iragartzeko, zmorrotz@gmail.com helbidera idatzi urtarilaren 8a baino lehen.



Bekatua

Goiatz Labandibar.
Erein. 2023. 96 orrialde.



Ezezagun baten ohean esnatu da Garazi ondoan duen gaztea ez da «bere Axi». Pentsamen-
duak korapilatu zaizkio protagonista, bezperan edan zituen marrubizko tekila txupitok bere sabelean nola. Egoera berriak haren ordu arteko bizimodua, harremanak, ziurtasunak eta us-teak irauliko ditu.

Erruduntasuna eta harrotasuna; poza eta tristura; beldurra eta ausardia; zalantza eta ziurtasunak... Garazien goiza horien guztien koktela bihurtu da.

Bakarriketa maistraki darabil Goiatz Labandibarrek Bekatua eleberrian. Tragikomedia honetan, protagonistaren ahots organiko eta hordigarriak txundituta utziko du irakurlea.



KRUDDO "Nintzen"

(Autoekoizpena) 2023



Kitarra eta bateria. Besterik ez. Ez, ez da talde instrumental bat, ahotsa egon badago. Bermeoko bikote honek aurreko lanaren jarraipen gisa aurkezten digu "Nintzen" izeneko EP hau, 6 abestiz osatutakoa. Zuzenekoak alde batera utzi gabe,

aurten konposatutako kantak besapean hartu eta Iñigo Escauriaza teknikariaren laguntzaz El Submarino Records estudioan grabatu eta nahastu dituzte. Masterizazioa, aldiz, Katalunian egin dute, Ultramarinos Costa Bravan.

Soinu gordin eta konplexurik gabea sumatu daiteke EP berriko abesti guztietan, non stoner eta rock pisutsua nabarmentzen diren. Txaber Miravalles kitarrajole eta abeslaria aurretik Niketz proiektuan ezagutu genuen, eta nahiz eta estiloa berdina ez izan, konposatu eta abesteko eran talde horren zantzuak ikus daitezke. Oinarri erritmikoan Jon Ander Santamaria dugu, zeinen jotzeko era ezin aproposagoa den estilo honetarako.

Diseinuaren ardura Iker Ruiz "Fat" tatuai egi-learena da, bere estiloa bikain islatuz. Maketazioan aldiz, Iker Bengoetxea. Momentuz diska plataforma digitaletan bakarrik aurkituko duzue. Zuzenekoren bat ikusteko aukera izanez gero birritan ez pentsatu, lepoa mugitzeko ezin aproposagoak dira.



PINTXOTAN

Patata tortilla



Zailtasun maila: Erraza.

Prezioa: 1,20 euro.

Osagaiak: Olioa, patatak, arrautzak, gatz, urdaiazpikoa, gazta eta gazta birrindua.

Hasteko, patatak zuritu eta txikitu. Bota olio asko zartagin handi batean. Olioa bero dagoenean, bota patatak. Frijitu 15 minutuz. Jarraian, kendu olio eta gorde patatak plater batean.

Arrautzak irabiatu eta gero, gehitu patatak eta gatz pixka bat. Bitartean, jarri

olio pixka bat zartaginean eta berotu. Bota nahasketaren erdia. Gainean jarri gazta eta urdaiazpiko xerra batzuk, eta horren gainean nahasketaren beste erdia.

Frijitu 3 minutuz. Ondoren, plater handi batez buelta eman eta beste 3 minutuz utzi egiten.

Bukatzeko, kendu sutatik eta plater baten gainean jarri eta moztu zerbitzatzeko.

VENECIA TABERNA

Ordutegia:

Goizeko 6etatik gaueko 11k arte zabalik egunero, igandeetan izan ezik.

Abaro estrata, 10.

Telefonoa: 94 482 06 25



Iragar zaitetz

ZM
ZORROTZ MORROTZ
aldizkarian!

Euskara sustatu
Zorrotzan!

Tarifak eta informazioa:
zmorrotz@gmail.com

SATZ
OKINDEGIAK

**Zorrotzako
labea**

Zugandik gertu

Zorrotza Kastrexana errepidea, 34
Tfno. 94 441 09 71
Zorrotza - 48013 BILBO

**ROCKET
TAVERN**

Plater konbinatuak,
hanburgesak,
oilasko erreak...

FRAI JUAN, 8 • Tel 94 655 68 98



BAR VENECIA

Espezialitateak:
Kafea, tortilla, tortilla beteak
eta bestelako pintxoak

Abaro estrata 10

AUPA ATHLETIC



Ganekogorta (998 m.)

MANU COBO

Isurialdeak Bizkaiko hiriburu jendetsuaren bihotzean hasten dira, Bilbon (8 m). Ganekogortako mendigunea Zorrotza baino 1.000 metro gorago dau, Nerbioi eta Kadagua ibaien arro industrializatuen artean. Hala ere, interesgarria da ikustea oraindik aurki daitezkeela lasaitasun eta edertasun oasiak Bilboko erdigunetik denbora gutxian. Geurentzako oso polite da, auzotik ikusten dogulako egoaldean arro eta 8

metrotik milara igotzen dogulako, mendi gitxiten egingo dogu halako malda. Igotzeko, aurrekoetan aipatu dogun Pagako bide berbera jarraituko dogu eta handik, Tarin iturrire pasa, lepora heldu eta Laudiorako bidea hartu beharrean, gora ta gora, ton-torrera heldu arte; gaur egun pista zabala egin dabe gorarte,

Madozen hiztegiak Belaute toponimoa aipatzen dau, eta nolabait lotzen dau gailur ezagun horregaz. Gaian adituak direnek Belauteko gaña izena jaso dabe Zollo inguruan, eta adierazi dabe goragune horren izena dala; Ganekogorta, berriz, gertuko korta bat da, Gorta edo Korta ondo mugatutako lursaila.

Mendigunearen garaiera handiena Ganekogorta mendiak dau (998m), Bizkaia-aren eta Arabaren arteko muga markatuta. Mendi horretan hasi ziran Euskal Herriko mendi lehiaketak 1914an. Gainera, bozina-mendia da, jaurerriko batzarrei deitzeko balio baiteban, gailurrean sua piztuz eta adarrak joaraziz.

Gorta edo korta oso arruntak ziran mendi hontan, baita Gorbeian ere, borobilak ziran eta erdien mugarri bet jartzen zan.



TXOKO FEMINISTA



Estatu espainoleko 48 unibertsitate publikoetako irakasle eta ikertzaileen artean dagoen genero soldata-arrakalari buruzko txostena argitaratu du Unibertsitate Ministerioak. Honek dio soldata diskriminazioa irakaskuntza-adar guztietan ematen dela eta adar guztiak kontuan hartuta, 2021. urtean, %12,7ko aldea zegoela gizonen eta emakumeen arteko ordainsari gordinen eta soldataren artean.

Zehazkiago behatuta, soldata-arrakalaren jatorria ordainsari osagarrietan dago batez ere. Hauek, ekoizpen zientifikoari eta

lanbide-kategoria handienei lotutako produktibitate-osagarriak dira gehienbat. Kontsideratuta katedren %73 gizonek betetzen dituztela eta postu gorenetan emakume gutxi dagoela, eta jakinda emakumeek gizonen baino denbora gehiago ematen dutela etxeko lanetan eta ordaindu gabeko zainketan (ondorioz, denbora eta prestasun gutxiago dituztela irakaskuntzan eta ikerketan aritzeko)...

Azken batean, beste lan-, gizarte- eta politika-arlo batzuetan bezala, gizonen eta emakumeen arteko egiturazko desberdintasuna unibertsitatean ere islatzen da.

IRATZE PÉREZ

SALAKETA ARGAZKIA

Ez zegoen leku aproposagorik?

ZMeko ale honetan bertan eman da BizkaiBizi zerbitzua martxan jarri izanaren berri. Mugikortasun iraunkorragoa sustatzen duten horrelako zerbitzuak abian jartzea albiste ona da, dudarik gabe. Baina ainguraketa-puntua jartzeko aukeratutako lekua aproposena ez dela uste dugu. Errepidetik ainguratze-punturaino, tarte handi bat dago, non zerbitzu honen erabiltzaileek kirodegira edo Auzo Etxera sartzen edo handik irteten diren oinezko ugariarekin espaloia partekatzen duten, horrek dakarren arriskuarekin. Izan ere, txirindulari asko ez dira bizikletatik jaisten puntutik hartu edo uztean.



Jai-Alai
kafetegia



VÍA gráfica

viagrficazorrotza@gmail.com

Disenya

MADNESS KAFETEGIA

Elena eta Javier

Zalbidea estrata, 5 - atzea

ZORROTZA

48013 BILBO

MADNES

Tel. 94 441 62 75

Euskal Herriaren erakusgarria

Lehengoan ez dakit nork galdetzen zuen Twitterren ea 80ko hamarkadako Errealak txapelak hartako zenbat jokalaririk ziren euskal hiztunak. Galdera zoroa eman dezake, are garrantzi gutxikoa lortutako balentriaren aldean: liga bi aldiz irabaztea, 1981 eta 1982an. Nire ustez badu zeresana, ordea. "Hara bestea, berriz ere euskararen matrakarekin!" esango du norbaitek. Tira, sinetsiez adazue egunerokoa ez didala hainbeste buruhauste ematen hizkuntzaren kontuak, urtetako lanketaren ondorio. Ea, zentra gaitez. Badu garrantzia, talde hura herri baten sinbolo zelako, euskal herritarrez osatua -Errealak 1989an ekin zion atzerritarrek fitxatzeari- izateaz gain, une politiko bereziki mugitueta lortu zituen ligak, frankismoaren osteko euskal abertzaletasunaren berpizkundean, Ikurriña ozta-ozta legala zela. Talde horretan 3 baino ez omen ziren euskaldunak, hainbat txiolarik zalantza argituta: Zelaieta, Alonso, Kortabarria, Bakero anaiak. Baten bat gehiago



ASIER URKIZA

akaso. Bospasei, edozein kasutan. Azter dezagun, beraz. Nortzuk ote euskal hiztunak hamarkada horretako Athletic mitikoan? Klubaren orriari aztarrika ibili eta lehenengo begiratuan hauek 1983-1984-1985 urteetako balizko euskaldunak: Zubizarreta, Andrinua, Nuñez, Argote, Elgezabal eta Endika. Ez dira gutxi, hasieran uste baino gehiago, egiari zor.

Kontuak ateratzen hasi eta proba egin daiteke ea gaur egun kopuru hori gaindituko genukeen. Jakin guztiek jakin behar dute, hitz egin bakar batzuek baino ez. Hona zerrenda, euskaraz publikoki agertu direnak bakarrik aintzat hartuz: Agirrezabala, Vesga, Sancet, Ruiz de Galarreta, Nolaskoain, Unai Gómez, Villalibre. Bat gehiago besterik ez. Ez dakit ariketaz ondorioz atera daitekeen, hainbat intuizio plazartu behintzat bai. Lehenik, tamalgarria da Athleticen euskaldun kopuru bera egotea 84an eta 2023an, gizartean aldaketa soziolinguistikoko sakona emandenean. Erabileran dago kokxa, badakigu. Ez dago

konparatzerik, baina. Garai hartan euskaraz ikasteko modua ia bakarrik ikastolak ziren; gaur egun, aldiz, eskola eredu orok bermatu behar luke euskararen ezagutza, gutxieneko adierazpen mailan bada ere. Ez aipatzeagatik D ereduaren ikasten duela umeen %80k EAEn, euskarazko murgiltze ereduak, alegia. Triste bezain ulergaitza da. Ez da hori auziaren mamia, halere. Kontua da Athleticen, Euskal Herriaren erakusgarria omen den horrek, bere jokalarien euskararen gutxieneko ezagutza ziurtatu behar lukeela, jakin ezean ikasteko baliabideak emanez -futbolarietarako baliabideak, kar kar-.

Euskaldunak badira euskaraz egitera bultzatu, euskaldunak ez badira ikasteko konpromisoa hartzeri behartu. 80ko Athletic hura herriari zor zitzaioela entzun izan dugu, eta badirudi tronpatu ginela euskaldunok, horiek ez baitziren nagusi ari gure hizkuntzan. 80etako giro zalapartatsuen baitan, euskal instituzioak hasi berriak edo zirela, onargarria izan daiteke. Baina athleticzale euskaltzaleok ez genuke onartu behar, 2023 betean, gure hizkuntza txakurraren putzaren pare izatea euskalduntasunaren aldarri egiten duen klubean.



Azaroaren 30ean Euskal Herria eraldatzera goaz

Badirudi mendeak direla Covid-19ak etxean giltzapetu gintuenetik, baina hiru urte baino ez dira igaro. Orduan, zainketaren garrantziaz ohartu zen gizarte osoa.

Bizitza duina eraikitzeko oinarria da zaintza guretzat. Zaintzak garrantzitsuak dira bizitzako une eta esparru guztietan, ez da gauza puntuala. Egungo sistema ekonomikoak kalteberatasun-egoeran jartzen gaitu, ez baitu kon-tuan hartzen zer garen.

Gaur egun, zaintza zerbitzuak gero eta pribatizatuago daude Euskal Herrian. Familia heteropatriarkala ardatz duten politikak erabiltzen ari dira zerbitzu horien garapena saihesteko; eta, berriz ere, zaintza-lanak emakumeen gain geratzen dira.

Erabateko eraldaketa nahi dugu, zaintzaz ulertzen



NEREA ZULOAGA
LAB sindikatuko kidea

“ Bizitza duina

eraikitzeko oinarria

da zaintza guretzat...

Erabateko eraldaketa

nahi dugu, zaintzaz

ulertzen duguna eta

gizarte gisa ematen

diogun lekua ere

aldatuko dituen

duguna eta gizarte gisa ematen diogun lekua ere aldatuko dituen. Funtsezkoa izango da gure subjektibotasunean aldaketa sakonak sustatzea, genero-sozializazioa eta lana-

ren banaketa sexuala eta arrazista desagerraraziko dituen pedagogia feminista batetik abiatuta, eta behar eta eskubide kolektibo gisa hartutako zainketiko konpromisoak eta erantzukizunak txertatuko dituen, bizitzaren hasieratik amaierara arte.

Horregatik, epe laburrean honako lehentasun hauek ezartzen ditugu:

- Zaintza duinen unibertsaltasuna eskubide gisa aitortzea eta bermatzea.
- Zaintza sistema indartzea eta garatzea.
- Zaintza zerbitzuen pribatizazioarekin amaitzea.
- Lanaldia murriztea soldata txikitu gabe: zaintzeko denborak bermatzea.
- Denontzako pentsio duinak ezartzea: 1080€ gutxienez.
- Atzerriartasun legedia bertan behera uztea, eta bitartean, zaintza langile guztiak erregularizatzea.

Horregatik guztiagatik azaroaren 30ean GREBARA GOAZ!!!

ehbildu

ETORKIZUNA GARA.



ASKABIDE
kultur elkarte
ZORROTZA



Nerea

Zainketen gaiaren eztabaida mahai gainean jartzea guztiz beharrezkoa da. Beraz, grebak honetarako abiapuntua izan behar du



Jon

Ez nekien greba deialdia zegoenik, baina aldarrikatzen denaren guztiz alde nago.

IRATZE PÉREZ



Greba feminista.

Ekimenaren berri zenuen?
Greba egingo duzu?



Marimertxe eta Josune

Aurten greba egingo ez dugun arren, guztiz ados gaude deialdiarekin. Egindako aldarrikapenak gure elkartasun eta babes osoa dauka



Arkaitz

Ez nuen deialdiaren berri. Emakumeek duten gizarte desberdintasunekin amaitzeko edozein ekimeni ondo deritzot.



Rebeka

Aurreko greba feministetan bezala, greba egingo dut. Emakumeon eskubideen defentsan ezin da atzerapausorik eman.



B
BiziFitness

Zure zain gaituzu
Zalbidea estratako 13an.

CROSS TRAINING
ENTRENAMENDU FUNTZIONALA
TXIKICROSS

Deitu 623 106 531 telefonora




MESÓN
LUNA

*Etxeko berezitasuna: haragiak eta arrainak
Itsaski-haztegi propioa
Eguneko menua eta menu hitzartua*

Clara Campoamor, 2
48013 Zorrotza

Tel. 94 499 01 30
www.mesonluna.es



13^{urte}

ZORROTZA F.C.
*kirolarekin,
auzoarekin eta
euskararen alde!*

eskatu eskaini euskaraz

Zuk aukeratzen duzu

Badakizu aukeratzen duzun
hitzaren arabera izango
direla zure harremanak?



Euskadi, auzolana, bion comin

ELUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO



iKasi MiKasi!

0-18 urteko heziketa-ibilbide osoa,
ikastetxe publikoetan eta
Zorrotzatik irten gabe

 CEIP ZAZPIPLANDA ZORROZGOTTI ILLHI
Pinadia etbaldea, 6. 48013, Zorrotza. Bilbo
☎ 94 442 48 75 • 📠 94 442 48 75
📧 sietecampas@gmail.com

 CEIP ZORROTZA-FRAY JUAN ILLHI
Ikastalde etbaldea, 12. 48013, Zorrotza. Bilbo
☎ 94 442 00 21 • 📠 94 442 00 21
📧 014159aa@hezkuntza.net

 ZORROTZA BHI
San Miguel auzunea, 10. 48013, Zorrotza. Bilbo
☎ 94 428 01 36
📠 94 428 01 37
📧 015078aa@hezkuntza.net
www.ieszorrotzabhi.hezkuntza.net

aek

23. korrika

DENDA BILBON

Loteria 3,
Bilboko Zazpikaleak

- Ostegunetan, 17:00-20:00
- Ostiraletan, 17:00-20:00
- Larunbatetan, 10:30-13:30
eta 17:00-20:00



Irundik Baionarat
2024ko martxoaren 14tik 24ra

Izan
Korrika
laguntzailea
EKIN
KORRIKARI!



korrika.eus

